

argazkigintza > argi-itzalak

Sehaskatik zaletuta

Ibai Armentia bilbotarra kameraz eta argazkiz inguratuta bizi izan da umetatik; orain, aitaren zaletasuna berea ere bada. Egurretik, ezpala.

IDOIA ETXEBERRIA

Euskal Herriko Argazkilari Taldeen Elkarteko kiderik gazteena da Ibai Armentia, 16 urterekin. Jaio zenetik dago argazkiz eta kameraz inguratuta, aita argazkizale amorratua baitu. «Etxean esan didatenez, hiru bat urterekin atera nituen lehen argazkiak». Orduan, noski, doi-doi zekien zertan ari zen: «Botoiari ematen nion, besterik ez; serio, duela lauzpabost urte hasi nintzen argazkiak egiten». Orain, ez du aukerarik galtzen: motxilan beti darama kamera txiki bat, badaezpada, eta ahal duen guztietan argazkilaritza ikastaroretan ematen du izena; gehiago ikasteko. «Eta aita argazkiak ateratzera doanean, berarekin joaten naiz».

Era guztietako gaiak jorratzen ditu, «denetik: kirola, paisaia, jen-

dea... edozein gauza». Orain arkitekturarekin lotutako argazki sorta bat ari da prestatzen. Abstrakzioa ere landu du pixka bat: «Aitor Ortiz argazkilariaren lana asko gustatzen zait, eta egin dudanak badu antzik». Baina esan daiteke oraindik ez duela bere bidea aurkitu: «Orain dela asko Carlos Prieto argazkilariarekin egon ginen, eta argazki batzuk eraman nituen, berak komentatzeko. Esan zidan argazkiekin ondo ikusten ninduela, baina kontzeptualizatzen pixka bat motel, eta nik ere hori ikusten dut».

Gaztetxoa da, eta astia behar du gustuko esparrua aurkitzeko. Argi duena da batxilergo artistikoa egin nahi duela. «Ikastetxez aldatu beharko nuke, eta ez dakit hartuko nauten... baina nahiko nuke». Geroko ikasketetan ere ildo beretik jotzeko asmoa dauka; irudiarekin lotuta, alegia: «Ikus-entzunezkoak edo». Goiztxo da esateko.

Esku artean izan zuen lehen kamera «konpaktu simple bat» zen; «aitak utzi zidan, argazki rally baterako». Orain, bi kamera digital ditu: bata konpaktua eta bestea reflexa. «Argazkiak ateratzera noanean, handia eramaten dut». Ordeingailuarekin ondo moldatzen

■ nortasun agiria

- **Izena:** Ibai Armentia.
- **Jaio:** Bilbon, 1991n.
- **Ogibidea:** DBHko 4. mailako ikaslea.
- **Argazkilaritza:** Aita izan du maisu. Hiru urte zituela atera zituen lehen argazkiak, eta 12 bat urterekin erne zitzaion benetako zaletasuna. Euskal Herriko Argazkilari Taldeen Elkarteko kiderik gazteena da.
- **Sariak:** BBK sarietan birritan lortu du gazteen alorreko saria, 2004an eta 2005ean, eta bere ikastetxean ere eskuratu du argazkilaritza saririk.
- **www.federacionfotovasca.org**



da, eta ordu dezente ematen ditu argazkiei ukituak egiten: «Digitalekin aukera handiak dituzu. Lehen, argazkia atera eta zerbait aldatzeko, laborategian orduak eta orduak sartu behar zenituen!». Gela iluna zer den badaki, ikastaroetan probatuta, «argazkilaritza nolakoa zen ezagutzeko». Duela gutxi ere jardunaldi batzuetan egon da, Jose Maria Mellado argazkilariarekin: «Argazkilaritzan *photoshop* nola erabili azaltzen duen liburua argitaratu du, eta momentuko onena da. Gauza asko ikasi ditub».

Armentiarren lagunak ez dute argazkilaritza maite. Ez berak bezala, behintzat. «Nire adineko inor ere ez dut oraindik topatu zaletasun honekin». Berak zaletu beharko ditu! Oraingoz, baina, haiekin kirola egitearekin konformatzen da: «Era guztietako kirolak gustatzen zaizkit: surfa, eskia...».




Mendia. Mendizalea.



Hiria. Arkitektura.



Basoa.



Itzalak. Argazki abstraktua.



Itsasoa. Surflaria olatu gainean.